



EUSKO JAURLARITZAKO HAUTESKUNDE XXXXX-(E)K ADINAREN DATUAK ZEIN KONTSIDERAZIO DUEN GALDETUZ EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

LEHENENGOA. 2011ko martxoaren 27an Eusko Jaurlaritzako XXXXX-(e)k egindako txosten eskea jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Eskaeran idazpuruan adierazitako gaiari buruzko erantzuna eskatzen dute. Hona hemen eskaeraren zati bat:

“XXXXX arau bat prestatzen ari da adin txikikoak kontrolatzeko eta babesteko. Horretarako, gure zuzendaritzak hainbat datu erregistratu eta egiaztatu beharko ditu.

Edozelako iradokizunak jasotzeko presta bagaude ere, premia berezia dugu honakoa jakiteko: ea datu-babesari buruzko araudiak bereziki babestutako datutzat jotzen duen adina.”

BIGARRENA. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“n) Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.



KONTUAN HARTZEKOAK

I

Hain informazio gutxi eman diguten, kontsultako gaiari erantzun orokorra baino ezin diogula eman. Gainera, helarazi diguten kontsulta ere labur samarra da eta kontsulta gai den araudia ere ez digute bidali, oraindik ez dutelako bukatu.

Gaia aztertzen hasteko, datuak babesteko eskubidearen ganga-giltzarria aipatu behar den nahiatez: adostasuna beharrezkoa dela.

Datuak babesteko oinarrizko eskubidearen funtsezko printzipio bat da eta DBLOren 6.1 artikuluan dago jasota:

“1. Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko, ukituaren zalantzarik gabeko adostasuna beharko da, salbu eta legeak beste zerbait xedatzen duenean”.

Adostasuna beharrezkoa dela dioen printzipio orokorra are gehiago indartzen da zenbait kasutan, batez ere bereziki babestutako datuak badira. Bereziki babestutako datuak DBLOren 7. artikuluan daude jasota. Hasiera batean pertsona jakin batean adina ez dago Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 7. artikuluan jasotako datuen artean. Hona hemen 7. artikulua lehendabiziko hiru puntuak. Bigarren eta hirugarren puntuak esaten da zein diren bereziki babestutako datuak:

“1.- Konstituzioaren 16. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoarekin bat etorritik, ezin izango da inor behartu bere ideologia, erlijio edo sinesmenei buruzko adierazpenak egitera.

Datu horiek direla eta, aurreko idatz-zatiak aipatu adostasuna eskatzen denean, interesdunari adostasun hori ez emateko duen eskubidea ohartaraziko zaio.

2. “2- Ideologia, sindikatu-afiliazio, erlijio eta sinismenaren berri ematen duten izaera pertsonaleko datuak ukituaren esanbidezko eta idatzizko adostasunarekin bakarrik trata daitezke. Horren salbuespen dira politika-, filosofia-, erlijio- edo sindikatu-izaerako xedea duten alderdi politikoak, sindikatuen, konfesio edo erkidego erlijiosoen eta elkarteak, fundazioen nahiz irabazteko asmorik gabeko beste entitate batzuen fitxategiak, euren kideen inguruko datuei dagokienez; hala ere, datu horiek laga daitezken ukituak aurretiaz emandako adostasuna behar da beti.

3. Arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko datu pertsonalak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arazoak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori”.

DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak badu adinari buruzko aipamenen bat; izan ere, 13. artikulua arautzen baitu adin txikikoen datuak tratatzeko adostasuna.

1.- “Hamalau urtetik gorako datuak tratatzeko aukera egongo da, horretarako baimena ematen badute, non eta legeak ez duen eskatzen, datu horiek utzi ahal izateko, guraso-agintea dutenek edo tutoretza dutenek laguntzea. Hamalau urtetik beherako kasuan, gurasoen edo tutoreen oniritzia behar izango da.



2. Inoiz ere ezin izango zaio adin txikikoari familiako gainerako kideei buruzko informazioa lortzea ahalbidetuko duen daturik eskatu, edo familiaren ezaugarriei buruzko daturik eskatu, esate baterako gurasoen jarduera ekonomikoari buruzko datuak, informazio ekonomikoa, datu soziologikoak edo beste edozein, baldin eta datu horien titularrek horretarako baimenik eman ez badute. Dena den, aitaren, amaren edo tutorearen identitateari eta helbideari buruzko datuak eskuratzeko modua egongo da, baina soilik aurreko paragrafoan aurreikusten den baimena eskuratzeko.

3. Tratamenduan adin txikikoei buruzko datuak jasotzen direnean, adin txikikooi igortzen zaien informazioan erraz ulertzeko moduko hizkera erabiliko da, eta berariaz aipatu beharko da artikulua honetan xedatzen dena.

4. Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzulearen ardura izango da zehaztu beharreko prozedurak zehaztea, adin txikikoaren adina benetan hori dela bermatzeko, eta, hala behar duenean, gurasoek, tutoreek edo legezko ordezkariak emandako baimena benetakoa dela bermatzeko.

Adin txikikoen datuen tratamenduetan goiko arau horiek bete beharko dira. Edozelan ere, irizpen-eskaera idazkian esaten da zuzendaritza arau bat prestatzen ari da adin txikikoak kontrolatzeko eta babesteko. Horretarako, Hauteskunde Administrazio, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak hainbat datu erregistratu eta egiaztatu beharko ditu.

Kontsulta idazkia irakurrita, beraz, adin txikikoen datuak bilduko dituztela ondorioztatzen da, eta hori hala bada, datuak biltzean informatzeko bete beharra bete beharko dute. Betebehar hori DBLOren 5. artikuluan dago jasota.

“1. Datu pertsonalak eskatzen zaizkien interesdunei aurretiaz eta esanbidez informazio zehatza eta zalantzarik gabea eman beharko zaie, ondoko hauen inguruan:

a) Datu pertsonalen fitxategi edo tratamendu bat dagoela, datuak zertarako biltzen dituen eta informazioaren hartzaileak nor edo nortzuk diren.

b) Egiten zaizkion galderak derrigorrez ala borondatez erantzutekoak diren.

c) Datuak ematearen edo ukatzearen ondorioak

d) Atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko aukera duela.

e) Tratamenduaren arduradunaren, edo, hala badagokio, bere ordezkariaren identitatea eta helbidea.

Tratamenduaren arduradunak Europar Batasunean establezimendurik izan ez eta datuak tratatzean Espainiako lurraldean kokatutako bideak erabiltzen dituenean, ordezkari bat izendatu beharko du Espainian, salbu eta bide horiek igarobide-xedeekin erabiltzen direnean, tratamenduaren arduradunaren aurka jar daitezkeen akzioak gorabehera.

2. Datuak biltzeko galdera-sortak edo beste inprimaki batzuk erabiltzen badira, aurreko idatz-zatian aipatutako ohartarazpenak jasoko dira halakoetan, argiro irakurtzeko moduan jaso ere.

3. Ez da behar izango 1. idatz-zatiko b), c) eta d) letrek aipatu informazioa, eskatzen diren datu pertsonaletatik edo datu horiek jasotzen diren inguruabarretatik ondoriozta daitekeenean informazio horren edukia.



4. Izaera pertsonaleko datuak interesdunarengandik jaso ez direnean, fitxategiaren arduradunak edo horren ordezkariak esanbidez informazio zehatza eta zalantzarik gabea eman beharko dio interesdunari, datuak erregistratu eta hurrengo hiru hilabeteetan, tratamenduaren edukia, datuen jatorria eta artikulua honen 1. idatz-zatiko a), d) eta e) letretan jasotakoaren inguruan, salbu eta interesdunari aurretiaz eman zaionean horren gaineko informazioa.

5. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa ez da aplikatuko, legeren batek esanbidez horixe ezartzen duenean, tratamenduak xede historiko, estatistiko edo zientifikoak dituen, edo Datuak Babesteko Agentziaren zein horren pareko autonomia-erkidegoko erakundearen arabera ezinezkoa denean interesdunari informazioa ematea, edo neurritz kanpoko ahaleginak egin behar direnean, interesdunen kopurua, datuen antzintasuna eta izan daitezkeen konpentsazio-neurriak kontuan hartuta.

Orobat, ez da aplikatuko aurreko idatz-zatian xedatutakoa, datuak jendearen esku dauden iturrietatik atera eta publizitate-jarduerarako zein merkatu-prospektiorako erabiltzen direnean. Halakoetan, interesdunari zuzendutako komunikazio bakoitzean datuen jatorriari eta tratamenduaren arduradunaren identitatearen zein interesdunak dituen eskubideen gaineko informazioa emango da.

Informatzeko betebeharra dela eta, komeni da Datuak Babesteko erregelamenduaren 13.3 artikuluan jasotakoa gogora ekartzea:

“Tratamenduan adin txikikoei buruzko datuak jasotzen direnean, adin txikikooi igortzen zaien informazioan erraz ulertzeko moduko hizkera erabiliko da, eta berriaz aipatu beharko da artikulua honetan xedatzen dena.”

Azkenik, esan behar da bildu beharreko datuak fitxategi batean jasoko direla, eta berdin dio fitxategi berria den ala lehendik zegoen. Fitxategia zer den dioen definizioa DBLOren 3 b) artikuluan dago josta:

“Datu pertsonalei buruzko informazio-multzo egituratua, edozein dela sortzeko, biltegitratzeko, antolatzeko eta atzitzeko era edo modalitatea.”

Fitxategia berria bada, DBLOren 20. artikulua xedatutakoa bete beharko da:

“1. “Estatuko Aldizkari Ofizialean” edo kasuan kasuko egunkari ofizialean argitaratutako xedapen orokorraren bidez bakarrik sortu, eraldatu edo ezaba daitezke Administrazio Publikoetako fitxategiak.

2. Fitxategiak sortzeko edo aldatzeko xedapenek honakoak adierazi beharko dituzte:

a) ategiaren helburua eta fitxategi horretarako aurreikusi diren erabilerak.

b) Zeintzuk pertsona edo kolektibori buruzko datuak eskuratu nahi diren edo zeintzuk pertsona edo kolektibo dauden datuak ematera behartuta.

c) Datu pertsonalak jasotzeko erabiliko den prozedura.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta bertan sartutako datu pertsonal moten deskribapena.

e) Datu pertsonalen lagapenak, eta, hala badagokio, hirugarren herrialdeetara egitea aurreikusten diren datu-transferentziak.



- f) Administrazioetan tratamendu kontrolatzaile diren organoak.*
 - g) Zein zerbitzu edo unitateren aurrean erabili ahal izango diren datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak.*
 - h) Goi-mailako, maila ertaineko ala oinarrizko segurtasun neurriak behar dituen.*
- 3. Fitxategiak ezabatzeko ematen diren xedapenetan fitxategi horien destinoa ezarriko da edo, hala denean, fitxategi hori suntsitzeko hartutako neurriak.”*

Datuak bildu aurretik sortu beharko da fitxategia. Bestalde, fitxategia sortu ondoren, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan deklaratu beharko da, Erregistroan inskribatzeko.

Ez dakigunez zein motatakoak diren bildu nahi dituzten datuak, ezin dugu esan zein segurtasun neurri beharko dituen fitxategiak. Edozelan ere, DBLOren 9. artikulua jasotako preskripzioak eta DBLO garatzen duen Erregelamenduko VIII. Titutuan jasotakoa bete beharko ditu.

Gogoeta juridiko horien guztien ondorioz, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak honakoa ebatzi du:

ONDORIOA

Kontsulta aipatzen den datu-tratamenduak, Eusko Jaurlaritzako XXXXX-(e)k egin nahi duenak, irizpen honetan aipatu diren kontuan hartzeko guztiak bete beharko ditu, eta funtsezkoa da adin txikikoaren edo legez duen ordezkariaren edo tutorearen adostasuna izatea datuak bildu ahal izateko. Adostasuna ez da beharko legeren batek gaitzen badu datu-bilketa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 6. artikulua aipatzen duenaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko apirilaren 18an